

‘Non est’

Neguko Olinpiar Jokoak sarri egin behar diren Sotxiko alkatea, Anatoli Pakhomov delako batek, bere hirian ez dagoela homosexualik adierazita harritu du komunitate zientifikoa. Fenomeno bitxi hori, nik dakidala, eta Mahmoud Ahmadinejad presidentearen lekukotasunari kasu eginik, Sotxiz gain, Iranen baino ez da orain arte izan. Sotxiko *Gay Studies*-etako txosten bat pasako zioten berari ere, ongi bilatuta ere, baita leizerik ilunetan ere, «pepinoaren klubean» harpidedunik %0 badagoe-larantziz.

Zerbaiten existentzia ukatzea arrunt gauza zaila da, filosofoei kasu egitera,

baina politikariak (edo ezjakintasuna, nahi duzuen bezala deitu) ausartak dira, legeak ematen dien ziurtasun faltsua lagun. *Quod non est in actis, non est in mundo*, esan ohi dute legegariak: paperean jasota ez dagoena ez da mundu honetan existitzen.

Baina nolatan jazartzen diote existitzen ez denari? Akaso homosexualitatearen kontrako legeak berak sortu ditu homosexualak? Aporia galanta.



Jira
Angel Erro

Paradoxen zalea dugulako Sotxiko alkatea. Sotxira doazen gay eta lesbianak ongi hartuak izanen direla esan eta berehala, horrelako jendea Sotxin ez dutela onartzen gehitu du.

Sotxin gay taberna bat ba omen dago, dena den. Hutsik, suposatzen dut.

Himnoak

Hasten zara Pete Seeger musikari estatubatuar zendu berriaren abestiari entzuten eta konturatu orduko kantuan zara zu zue ere. Izan ere, melodia sinpleak dira, errepikakorak, hein batean alaiak; kantatzeko gogoa kutsatzen dute. Eta erantsi horri injustizien kontrako eta zapalduen aldeko letrak, eta jendearen sinesteko gogoak pizten dute, kantatzeko ez ezik, albotari eskutik oratuta kantatzeko. Are, zenbat eta ahots gehiago batu abesti horietara orduan eta ederrago bihurtzen dira, bestela tinbre, afinazio eta doinuera desberdinen kirrinka litzatekeena harmonia bihurtzeko do-



Bira
Idurre Eskisabel

haina balute bezala. Ez da kasualitatea, Seegeren mundu ikuskeraren eta haren arabera musikaren lanketaren emaitza baizik: folka, herri musikak, elkarrekin kantatzeko melodiak, sortzailea taldean urtzen duten doinuak. Neurri batean, himnoak.

Baina, aizue, jende hipermoderno megalatibizatzaileok nola ikasi dugun himnoak mespretzatzen, futbol taldeenak edo Grammyetakoak izan ezik

—taldeetan nostalgiaz maite ditugu lehenak; jolasa entrenimenduarekin nahasteagatik bigarrenak—. Harrigarria da hain bizkorrik izan nola ikasarazi duguten masa itxuragabe eta itogarria besterik ez ikusten komunitatea egon daitekeen lekuan, eta, aldiz, artea berrietasun hutsaletan.

Zuzendaria:
Martxelo Otamendi
Zuzendariordea:
Iñaki Pexarroman
Edizio arduraduna:
Jose Anjel Aldai
Argitaratzailea:
Euskal Editorea SM
Publizitatea: Bidera
publizitatea
Lege gordailua:
SS-0662/03
Batzorde parekidea:
0712184059

Egoitza nagusia:
Martin Ugalde kultur parkea.
Gudarian Etorbidea, z/g,
20140 Andoain.
Telefona:
(0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea:
www.berria.info
Posta elektronikoa:
berria@berria.info
Publizitatea:
publi@bidera.eu
Harpidetza saila:
(0034) 943-30 43 45

Date: 29/01/2014
Exemplaire: 3.288
Editeur: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication:
Martxelo Otamendi
Comission paritaire:
0712184059
Delegation Labour:
Lisses 3, 64100-Baiona.
Tel.: (0033) 559256220.
Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6.
Posta kodea: 01008
Gasteiz. Telefona:
945-15 04 52. Erredakzioko
faxa: 945-14 83 07.
Posta elektronikoa:
araba@berria.info.
Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,
3. C. Posta kodea: 48001
Bilbo. Telefona:
94-435 26 00. Erredakzioko
faxa: 94-423 49 75.
Posta elektronikoa:
bizkaia@berria.info.
Lapurdi: Lisses, 3. Posta
kodea: 64100 Baiona.
Telefona: 559-25 62 20.
Faxa: 559-25 43 03.
Posta elektronikoa:
lapurdi@berria.info.
Nafarroa: Iratxeko Monaste-
rioa, 45, 13. Posta kodea:
31011 Iruñea. Telefona:
948-36 66 22.
Publizitatea: 948-36 66 23.
Posta elektronikoa:
nafarroa@berria.info.

Txillardegi pianoa jotzen

Fito Rodriguez
‘Txillardegi Liburutegia’ taldeko partaidea

Arpa jotzen, horrela esaten zaio norbaiti trufa egiten zaionean baina (zer izango dugu euskaldunok musikarekin?), adarra jotzea ere erabili ohi da.

Halaxe sentitu naiz ni, burlatua eta dantzari jarria alegia, «Txillardegi Udal Liburutegia» aldarrikatzeko urtarrilaren 18an burutu genuen ekitaldia prentsan islatuta (era ezin traketsagoan esan dezadan, bide batez...) ikusi dudanean.

Izan ere, hego Euskal Herrian irakurtzen diren egunkari batzuk guztiz faltsua izan den berria zabaldu dutenean (Donostiako Udala gobernatzeko duen Bilduk, gainerako talde politikoen iritziari jaramonik egin gabe, Liburutegiari Txillardegi izena eman diola) aipatu komunikabideek bazekiten, jakin ere, izena aldatzearen ekintza bakesu bezain sinbolikoa «Txillardegi Liburutegia Ekimenak» egin zuela (bai argazkiak baita notizien testua bera ere igorri baitzitzaieen haiei guztiei), baina Donostiako PSOEkin emandako informazio okerra lehenetsi dute gezurra hedatzea hobetsiz, eta, argibideak erakutsi zaizkionean batzuek beren esana zuzendu duten arren (ez denek, ordea...), ez dute onartu nahi izan hanka sartu dutenik.

Informazio okerraren iturburua PSEko Garmendia zinegotzia eman zuten komunikabide haiek. Berarekin elkartu nintzen ni bilerara Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dekanoa den Xabier Etxague berandu zetorrenez, gure aldarrikapen eta, ildo beretik, «Txillardegi Liburutegia

Ekimena»-ren berri emateko. Beraz, nahiko datu bazuen Kultur ekimena dena eta Bilduko udal taldea bereizteko, baina, alferrik, gauzak nahastuz eta haiek behar bezala zabalduz garbia dena lokatzu egiten baita eta horixe bera nahi omen baitu, kasu honetan behintzat, Donostiako PSEK.

«Txillardegi Liburutegia Ekimenak» egingako proposamenak, nonbait, aspalditik izenik ez zuten udal liburutegirako hautagai asko sortarazi ditu. Gurea eztabaidatu aurretik, esterako, baten batek berriki zendutako Jean Haritxelar izena ematea proposatu zuen (ez nekien Euskaltzainburu izan zena donostiarra zenik...); beste batek, Ramon Labayen izendapena proposatu zuen (PPk, oker ez bano...), baina Labaien, euskaltzale bezain kultur eragile izan arren, ez dut uste liburu asko idatzi zuenik eta, ziur aski, bere izena PPK Txillardegiren aurka erabiltzea ez zuten berak ere erraz onartuko. Orain, aldiz, UPyDk Gregorio Ordoñezentzat nahi omen du liburutegia (komentariorik gabe).

-«Nik piano katedra bat nahi dut», esan dezake baten batek.
-«Baina, aizu, zuk ez dakizu pianoa jotzen», arropostu dezake beste batek.

-«Berdin du, ni biktima bat naiz», ihardetsiko dio adarra jo nahi gabe, gainera, ustezko piano jotzaileak.

Herri santu honetan denak balio duela ematen du. Dena zen ETA, eta orain dena da Bildu. Liburutegi bati agrafo baten izendapena eman ahal zaio lan eskerge egin duen baina ETAREN fundatzailea izan zen idazleari ez ematearren. Zilegi da, nonbait, ETAREN kontua azaltzea beti, edota Bildurena, gaur ez aldatzearen betiere.
Gure Dekanoaren partez (hark

asko estimatzen zuen Txillardegi), Marisol Garmendiarekin hitz egitera joan nintzenean, ETAREN aipamena erabiltzen ausartuko ote zen galdetu nion, eta berak ezetz esan zidan. Eskerrak, zeren eta PSOE / Euskadiko Ezkerran zenbat etakide-ohi ote dauden inork ez baitaki. Txillardegi izendapenaren aurka bozkatu zuen EAJko Donostiako udal taldean halakoren bat egon badagoela denok badakigu, ordea.
Baina PSEK ez zuten argudio makur hori erabili Txillardegi izendapenaren kontra bozkatzeko. Beraiak ez zutela udal eraikinik izen propioz izendatu nahi, horixe argudiatu zuen. Hara!, eta PSEK hainbat urtez gobernatu duen Donostian ez al dugu, bada, Ernest Lluch edota Imanol Lartzabal izeneko kultur ekipamendurik? Arpa jo nahian, ala?

Beraiak ez zutela udal eraikinik izen propioz izendatu nahi, horixe argudiatu zuen. Hara!, eta PSEK hainbat urtez gobernatu duen Donostian ez al dugu, bada, Ernest Lluch edota Imanol Lartzabal izeneko kultur ekipamendurik? Arpa jo nahian, ala?

Noiz adierazi dio Donostiako Udalak batari zenin besteari behar bezalako aintzatespenik?
Edo biktimismoaren kontuak batzuentzat bakarrik ote dira erabilgarri?
Txillardegi, besteak beste, sekulako intelektuala izan da, eta Donostiak haren izena aldarrikatu egin behar du ondo baino hobeto merezia duen tamainan. Eta horrela izan ezean, Donostia bera galtzaile. Hari zor zaion tokia ez emateko ez baitago argudiorik, aitzakiak baizik. Joko zikina, azken batean, gezurrez mukurua.
Eta horretaz gain, pianoa jotzen bazekien. Eta ondo, gainera.